

# EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2015eko 1. hiruhilekoa

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA FINANTZA  
SAILA  
*Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y FINANZAS  
*Dirección de Economía y Planificación*



## LABURPENA

2015eko hastapenean, EAEko ekonomiak hazkunde erritmoa bizkortu zuen eta %2,2an kokatu zuen BPGaren urte arteko aldakuntza tasa, aurreko balioa hiru hamarrenetan gaindituz. Beraz, dagoeneko bost hiruhileko kateatu ditu gero eta handiagoak diren aldakuntza tasak bilduz. 2015eko lehen hiruhilekoan jaso zuen gehikuntza Euroguneko (%1,0) eta Europar Batasuneko (%1,5) herrialdeen multzoena baino nabarmen handiagoa izan zen, baina ez zen iritsi espainiar ekonomiaren bizitasunera (%2,7).

Aurreko hiruhilekoetan gertatu zen bezala, bultzadaren arduradun ia bakarra barne eskaria izan zen, kanpo eskariak irudi neutroa eskaini zuen bitartean, hazkundeari ekarpenik egin ez ziola. Hala esportazio errealek nola inportazioek urte arteko jaitsierak (%-1,4) jaso zituzten lehen hiruhilekoan, hainbat hiruhilekotan bizitasun handia erakutsi ondoren. Emaitza horren oinarrian dauden arrazoietakoa bat EAEko enpresa handi batzuek hartu zituzten erabaki estrategikoak dira, merkataritzako harremanetan eragin iragankorrak baino izango ez dituztenak. Beherakada hori are esanguratsuagoa izan zen termino nominaletan (%-3,9 eta %-3,8, hurrenez hurren), prezioak, oro har, baina bereziki petrolioarena eta gainontzeko lehengaiak, oso nabarmen jaitsi ziren testuinguru batean.

Barne eskariaren bi osagaiek portaera hedakorra erakutsi zuten. Izan ere, azken kontsumoan eginiko gastua %2,3 handitu zen urte arteko tasan, hots, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bakar bat gutxiago. Atal horren barnean, kontsumo pribatuaren bilakaera sendoa nabarmendu zen, %2,9ko gehikuntza batekin, 2008ko hasieratik jaso ez den tasa bat delarik. Kontsumo pribatuaren bultzada hori hainbat ziotan oinarritzen da: enpleguaren hazkundera, jaitsi diren kontsumoko prezioetan, soldaten hobekuntza txikian, familien konfiantzaren susperraldian, kreditu bat lortzeko erraztasun handiagoan, finantza errentaren igoeran eta aurrezkiaren murrizketan. Halaber, urte batzuetan gastua geroratu eta gero, beharrezkoa zen etxebizitzaren produktu batzuk berritzea. Dena dela, datozen hiruhilekoetan kontsumo pribatua apalduko dela espero da, errenta erabilgarrira egokituz.

Kapital eraketa gordinak, berriz, hamarren batzuetan hobetu zuen urte arteko tasa, %1,3an kokatu arte. Lehen aldiz zazpi urtean, aldagai makroekonomiko horren bi atalek gehikuntza tasa positiboak lortu zituzten, gainontzeko inbertsioa izenekoak, eraikuntzan eginiko inbertsioa barnean hartzen duen atala baita, tasa positiboa jaso zuelako, txikia izan arren (%0,3). Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak ia ez zuen aldaketarik erakutsi aurreko hiruhilekoko bizitasunaren aldean eta %3,8 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren bakarrik gutxiago. Ekoizteko ahalmenaren erabilera oso altua da (%82,4 bigarren hiruhilekoan)

eta eskaera berriek ahalmena handitzeko inbertsioak egitera behartzen dute. Orobat, zaharkituta geratu den ekipamendua berritu behar da oraindik.

Eskaintzaren ikuspegitik, lehen hiruhilekoko gehikuntza sektore guztien hazkundean oinarritu zen, nahiz eta erritmoen aldeak oso nabarmenak izan ziren. Hain zuzen ere, EAEko ekonomiak erakutsi zuen bizitasunaren protagonista nagusia zerbitzuak izan ziren, beren balio erantsia %2,8 areagotu zituelako. Sektore horren barruan, homogeneousotasun handia hauteman da bere osatzen duten hiru blokeetan, hiruhileko horretan guztiek %2,5aren eta %3,0aren arteko aldakuntza tasak eskuratu zituztelako. Azpimarratu behar den beste ezaugarri bat honako hau da: lehenengo aldiz 2007ko amaieratik, eraikuntzak balio erantsia handitu zuen (%0,6), arlo horren tamaina garai hartan zenaren ia erdira murriztu duen egokitzapen prozesuari amaiera emanez. Azkenik, industriak nabarmen moteldu zuen bere hazkunde erritmoa (%0,2), datozen hiruhilekoetan desagertuko diren arrazoi iragankorrenatik.

Ekoizpenaren bizkortzeak isla garbia utzi zuen lan merkatuaren datuetan eta enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %1,4 hazi zen aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta. Tasa horrek esan nahi du azken urtebetean 12.400 lanpostu sortu direla. Lanpostu horietatik ia guztiak zerbitzuetan sortu ziren, eraikuntzak bere enplegu maila egonkortu zuen bitartean eta industriak jaitziera ia puntu erdi batean leundu zuen bitartean. Lan merkatuaren susperraldiak enplegu eskatzaile berriak animatu zituen eta, horren ondorioz, langabezia tasa zertxobait igo zen (%14,8).

Kontsumo pribatua oso bizkor handitu bazen ere, oraindik ez da tentsiorik hauteman prezioetan eta KPI indizeak oraindik ez ditu urte arteko tasa positiboak berreskuratu, nazioarteko merkatuetan petrolioaren salneurriak ezagutu duen beherakadak baldintzatuta. Azpiko inflazioak ere, kontsumoko prezioen hondoko joera hobeto adierazten baitu, ez du bizkortzeko joera garbirik erakusten eta oso balio apaletan, %0,5aren inguruan, kokatuta dago nahiko egonkor.


Aipatutako informazio guztia eta ingurunearen susperraldia kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailak gorantz zuzendu du bere aurreikuspena eta %2,5era igo du urte osorako emaitza. Hazkundearen zati handi bat barne eskariaren sendotasunean oinarrituko da, hala kontsumoarenean nola inbertsioarenean, eta kanpo saldoak ekarpen txikia egingo dio BPGaren hazkunderari. Halere, esportazioak eta inportazioak biziki areagotuko direla aurreikusten da, Europako ekonomiaren susperraldia finkatuko den heinean. Eszenategi horretan, enpleguak gora egiten jarraituko du eta urte osoko hazkunde tasa %1,6ra iritsiko dela aurreikusten da.

## EKONOMIAREN INGURUNEA


Munduko jardueraren adierazle ekonomiko behinenez hazkunde iraunkorra erakutsi zuten 2015eko lehen hiruhilekoan. Hain zuzen ere, jarduera sendoa hauteman zen bai Erresuma Batuan, erritmoa zertxobait apaldu zuen arren, bai AEBetan, 2014ko amaieran nozitu zuen moteltze nabarmenaren ondoren hazkundea areagotu zuelako. Aldi berean, Japoniak ezin izan zuen suspertu eta narriadura handitu zuen. Garapen bidean dauden herrialdeen artean, Txinak moteltzeko joerari jarraipena eman zion eta Indiak %7,5ean kokatu zuen BPGaren gehikuntza tasa, aurreko hiruhilekoko baino lau hamarren gorago.

### Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Txina



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Zehazkiago adierazita, Txinako BPGa %7,0 hazi zen aurtengo lehen hiruhilekoan. Zenbaki hori aurreko sei hilekoetan lortu zuten %7,3aren aldean nolabaiteko apaltzea den arren, onartzeko moduko emaitza da, kontuan hartuta nazioarteko egoera korapilatsua eta Txinako gobernua hazkunde eredu apalagoa baina jasangarriagoa lortzeko egin dituen ahaleginak. Hain zuzen ere, industria ekoizpenaren bultzadak (%6,4 hazi zen eta BPGaren %51,6 biltzen du), inbertsioaren egonkortasunak, bereziki aktibo finkoetan eta etxebizitzan eginikoak, eta esportazioen sendotasun berreskuratuak (aurtengo lehen hiruhilekoan %4,9 hazi ziren) hazkundea azaltzen dute. Halaber, Txinako KPIak maila apaletan jarraitu zuen (%1,4) eta horrek aukera bat ematen du politika hedakor gehiago ezartzeko.

AEBetan, kontsumo pribatuak sendo jarraitu zuen, %3,0ko hazkunde tasa batekin. Orobat, inbertsio pribatua indar handiz hazi zen eta gehikuntza garrantzitsuak lortu zituen talde guztietan, salbuespen bakarra egituretan eginiko inbertsioa izan zelarik, %0,2 murriztu baitzen, beharbada aurtengo lehen hilekoetan bizi zen egoera meteorologiko txarraren ondorioz. Esportazioen bilakaera ona izan zen arren, beraien hazkundea ez zen nahiko izan inportazioen gehikuntza konpentsatzeko eta kanpo arloak hamarren batzuk kendu zizkion BPGari. Elurteek, energia alorreko irazteek eta dolarraren balio irabaziak enpresa esportatzaileetan izan zuen eraginak ez zuten enpleguaren sorrera kaltetu eta hazkunde egonkorra erakutsi zuen. Halaber, langabezia tasak hoherantz egin zuen, astiro baina etengabe. Hain zuzen ere, apirilean biztanleria aktiboaren %5,4ra murriztu zen, 2008ko maiatzetik jaso den tasarik txikiena baita. Azkenik, kontsumoko prezioak apirilean %-0,2ra jaitsi ziren, martxoan baino hamarren bat beherago.

Japoniak, berriz, uzkurdua areagotu zuen berriro. Barne kontsumoak, herrialde hartako BPGaren %60 biltzen baitu, jaitsiera %-4,1era handitu zuen, eta egoitzetako inbertsioak erritmoa galdu zuen berriro. Kontsumo eta inbertsio publikoaren hobekuntza txikia ez zen nahiko izan arlo pribatuaren jaitsiera konpentsatzeko. Horren ondorioz, barne eskariak 1,5 puntu kendu zizkion hazkundeari. Kanpo arloak bilakaera hobea erakutsi zuen, esportazioen bultzadari esker, %7,3 hazi zirelako. Halere, eta inportazioak hazi ez baziren ere (%0,0), kanpo arloak bost hamarren bakarrik ekarri zizkieten jarduerari eta BPGa %1,0 murriztu zen, iazko laugarren hiruhilekoko emaitza baino hamarren bat gehiago. Bilakaera hori ez dator bat lan merkatuaren portaera onarekin. Zehazkiago, langabezia tasa %3,3an kokatu zen apirilean, azken 18 urteko (1997ko apiriletik) txikiena. Inflazioa, berriz, %0,6an kokatu zen hileko horretan, martxoan jasotako baliotik 1,7 puntu beherago, eta 2015erako ezarri zen %2,0aren helburutik urrundu da.

Europar Batasunak hazkunde erritmoa sendotu zuen eta aurtengo lehen hilekoetan ekonomiaren hedapenari jarraipena eman zion. Hain zuzen ere, eremu horren BPGa %1,5 hazi zen urte arteko tasan, 2014ko amaieran lortu zuena baino hamarren bat gehiago, eta 2011ko

hirugarren hiruhilekotik izan duen emaitzarik onena. Bizitasun horren atzean, Espainiaren, Erresuma Batuaren eta estatu kide berrien bilakaera ona dago, baina gaur arte argitaratu diren datuen arabera (28 herrialdeetatik 23renak), eremuko herrialde guztiek hazkunde tasa positiboak lortu zituzten. Hain zuzen ere, Erresuma Batuak %2,4ko gehikuntza eskuratu zuen, barne zein kanpo eskariaren osagai guztien bultzadan oinarrituta. Alemanian, kontsumoaren sendotasunak, hala publikoarenak nola pribatuarenak, ezin izan zuten inbertsioaren jaitsiera eta inportazioen bultzada konpentsatu, eta jarduera erritmoa apaldu zen (%1,0). Frantziako ekonomiak antzeko hazkunde eredu bati jarraitu zion, baina kontsumo pribatuaren ekarpen handiagoak bide eman zion herrialdeari aurreko bederatz hilekoetako geldotasunetik urruntzeko eta %0,7 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino zazpi hamarren gehiago. Oro har, kontsumo pribatuak bultzada handia eman zuen eta kontsumo publikoak eta inbertsioak, berriz, txikiagoa. Azkenik, kanpo saldoaren ekarpena negatiboa izan zen berriro.

Lan merkatuari dagokionez, langabezia tasak beheranzko joera leunari segida eman zion eta apirilean %9,7an kokatu zen, aldaketarik gabe. Beraz, lanik gabe dauden pertsonen kopurua 23.500.000tik gorakoa da. Datuak argitaratu dituzten herrialdeen artean, apirileko langabezia tasa txikienak Alemanian (%4,7) eta Luxenburgon, Maltan eta Austrian zeuden, azken hirurena %5,7 izan zelarik. Aitzitik, tasa altuenak Grezian (%25,6 izan zen martxoan) eta Espainian (%22,7) aurkitu dira. Azkenik, kontsumoko prezioek galdutakoaren zati bat berreskuratu zuten, eta lau hilekoz tasa negatibotan murgilduta egon ondoren, apirilean KPIaren urte arteko hazkunde hutsala (%0,0) izan zen. Eremua osatzen duten herrialdeetatik 27ren informazioa ezagutu da eta haietatik 12tan prezioen indizea negatiboa zen apirilean. Inflazio positiboa zuten beste 15etatik, hiruk (Herbehereak, Hungariak eta Luxenburgok) hazkunde hutsala izan zuten. Beste muturrean, tasa altuena, Maltako %1,4 albo batera utzita, Austriako %0,9a izan zen.

Aurtengo lehen hilekoetan, espainiar ekonomiak hazkunderako ibilbidea bizkortu zuen. 2014ko hasieratik gertatu denez, hazkunderaren oinarria barne eskaria izan zen. Zehazkiago adierazita, kontsumo pribatua sendo hazi zen (%3,5), enpleguaren bizitasunak eta finantzaziorako baldintzen hobekuntzak lagunduta. Inbertsioak, berriz, gehikuntza tasa garrantzitsuak lortu zituen atal guztietan. Izan ere, barne eskariak hiru puntu ekarri zizkion BPGaren hazkunderari eta kanpo saldoak hiru hamarrenetara mugatu zuen bere ekarpen negatiboa. Aldakuntza horien ondorioz, BPGa %2,7 hazi zen, hots, 2014ko azken hiruhilekoan baino zazpi hamarren gehiago, eta azken zazpi urteko emaitzarik onena kontabilizatu zuen. Eskaintzaren ikuspegitik, ekoizteko adar nagusi guztiek hobera egin zuten aurreko hiruhilekoaren aldean, baina lehen arloak oraindik balio erantsia gutxitu zuen. Eraikuntzaren bilakaera azpimarratu behar da, susperraldia finkatutzat jo daitekeelako, hiru hiruhilekoz jarraian hazkunde tasa positiboak lortuta, azkena %2,8 izan zelarik. Zerbitzuen barnean, finantza eta aseguru alorreko jarduerak hobekuntza arinari jarraipena eman zioten, baina oraindik bide luzea dute aurretik tasa positiboak berreskuratu arte.

**ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA**

Urte arteko aldakuntza tasa

	2013	2014	2014				2015
			I	II	III	IV	I
Azken kontsumoko gastua	-2,4	1,8	1,1	1,8	2,1	2,4	2,6
- Familien gastua	-2,3	2,4	1,3	2,3	2,8	3,4	3,5
- Administrazioaren gastua	-2,9	0,1	0,3	0,3	0,3	-0,5	0,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	-3,8	3,4	0,8	3,9	3,9	5,1	6,0
- Aktibo finko materialak	-4,2	3,6	0,7	4,3	3,9	5,5	6,7
- Eraikuntzan	-9,2	-1,5	-7,4	-0,7	0,1	2,4	4,9
- Ekipamendurako ondasunetan	5,6	12,2	15,8	12,9	10,2	10,3	9,4
- Aktibo finko immaterialak	-1,3	2,5	1,8	1,7	3,4	3,1	2,0
Nazio eskaria (*)	-2,7	2,2	1,2	2,3	2,6	2,7	3,0
Esportazioak	4,3	4,2	6,4	1,0	4,5	4,7	5,7
Inportazioak	-0,5	7,6	9,4	4,9	8,6	7,7	7,4
<b>BPG (m.p.)</b>	<b>-1,2</b>	<b>1,4</b>	<b>0,6</b>	<b>1,2</b>	<b>1,6</b>	<b>2,0</b>	<b>2,7</b>
Nekazaritza eta arrantza	15,6	3,3	10,3	1,6	5,3	-3,4	-2,6
Industria	-1,8	1,5	0,5	1,9	1,5	2,1	2,7
Eraikuntza	-8,1	-1,2	-6,2	-1,7	0,0	3,4	5,8
Zerbitzuak	-1,0	1,6	0,9	1,4	1,7	2,3	2,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,5	0,6	0,0	0,5	1,1	1,0	2,4
<b>GOGORATZEKOAK</b>							
- Kontsumoko prezioen indizea	1,4	-0,2	0,0	0,2	-0,3	-0,5	-1,0
- Enplegua (**)	-3,3	1,2	-0,4	1,0	1,7	2,4	2,8

Oinarri urtea: 2010. (\*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. (\*\*) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak. Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Lan merkatuari dagokionez, 2015eko lehen hiruhilekoan, landunen kopuruak gora egin zuen seigarren hiruhilekoz jarraian, eta enplegua %2,8 hazi zen urte arteko tasan. Datu horrek esan nahi du lanaldi osoko 458.000 lanpostu baliokide sortu zirela azken urtebetean. Eraikuntzaren enpleguaren igoera nabarmendu behar da, urtebete bakar batean %9,2 jaistetik sektore dinamikoena izatera igaro baita, %9,7ko gehikuntza batekin. Lehen arloak eta finantza jardueren adarrak bakarrik galdu zuten enplegua, eta lehenengoak jaitsiera areagotu zuen bitartean, bigarrenak nolabaiteko hobekuntza izan zuen. Azkenik, inflazioak behera egin zuen berriro eta maiatzean %0,2 jaitsi zen. Janariak eta alkoholik gabeko edariak, eta kafetegiak eta jatetxeak taldeen gehikuntzak eta garraioaren, komunikazioen eta aisialdiaren jaitsiera txikiagoak azaltzen dute hobekuntza hori. Urtarriletik (%-1,3) prezioek puntu bat baino gehiago egin dute gora.



## EAE-KO EKONOMIA

### Ekoizpena eta enplegua

2015eko hasieran, EAEko barne produktu gordinaren hazkundea %2,2 izan zen, aurreko hiruhilekoko hiru hamarrenetan gaindituz. Beraz, EAEko ekonomiak 2013ko hastapenetan, hots, bigarren atzeraldiaren puntu baxuenean (%-2,7) hasi zuen bizkortzeko prozesuak aurrera jarraitzen du, eta dagoeneko bost hiruhileko pilatu ditu urte arteko aldakuntza positiboak jasoz. Inguruneko herrialdeekin alderatuta, EAEko ekonomiak lortu zuen bultzada Europar Batasunak (%1,5) eta Euroguneak (%1,0) izan zutena baino askoz ere biziagoa izan zen, baina espainiar ekonomiak eskuratu zuena (%2,7) baino puntu erdi bat txikiagoa zen. Hiruhileko arteko terminoetan, lehen hiruhilekoko gehikuntza (%0,6) eta 2014ko hirugarren (%0,5) eta laugarren (%0,7) hiruhilekoetan lortutakoa oso antzekoak dira. Horrek pentsarazten du datozen epealdietan ere hazkunde tasa garrantzitsua eskuratuko dela.

#### ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2014				2015
			I	II	III	IV	I
<b>BPG erreala</b>	<b>-1,7</b>	<b>1,2</b>	<b>0,5</b>	<b>0,9</b>	<b>1,4</b>	<b>1,9</b>	<b>2,2</b>
Nekazaritza eta arrantza	-5,5	5,5	-1,9	6,2	13,8	4,6	13,9
Industria eta energia	-2,6	1,0	0,8	0,9	1,4	1,0	0,2
- Manufakturen industria	-1,5	1,1	0,9	1,0	1,4	1,1	0,3
Eraikuntza	-4,7	-3,0	-4,1	-3,6	-2,5	-2,0	0,6
Zerbitzuak	-0,9	1,5	0,6	1,1	1,7	2,6	2,8
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-1,6	1,6	0,3	1,3	1,9	3,0	3,0
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	0,1	2,2	1,7	2,0	2,4	2,8	2,7
- Gainontzeko zerbitzuak	-0,9	1,1	0,3	0,6	1,3	2,2	2,6
Balio erantsi gordina	-1,6	1,1	0,3	0,8	1,5	1,9	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-2,7	1,7	1,9	2,2	0,8	1,9	2,6

Iturria: Eustat.

Sektoreen ikuspegitik, lehen hiruhilekoko ezaugarriak esanguratsueneko ekoizpen sektore guztiek BPGaren gehikuntzan parte hartu zutela da. Halakorik ez zen 2007ko amaieratik gertatzen. Izan ere, eraikuntzak atzean utzi zituen azken zazpi urtean zehar pilatu zituen jaitsierak eta %0,6 areagotu zuen bere balio erantsia urte arteko tasan, emaitza oraindik apala den arren. Epealdi

horretan, sektorea balio erantsi osoaren %10,6 izatetik %6,2 bakarrik izatera igaro da. Arloaren adierazle aurreratu batzuek laster susperraldia gauzatuko zela iragartzen zuten, eta azkenean lehen hiruhilekoan gertatu da. Hain zuzen ere, etxebizitza berriak eraikitzeke bisatuak eta etxebizitzaren salmenta bera hazi ziren 2014an, eta lizitazio ofiziala ia bikoiztu zen urte horretan. Aldagai horiek iradokitzen zuten hobekuntza baieztatuta geratu zen eraikuntzaren koiuntura indizea argitaratu zenean, urte arteko tasan %0,8ko gehikuntza zenbatetsi zuelako. Estatistika eragiketa horren arabera, ordurako hazten ari zen obra zibilari eraikinen bultzada gehitu zitzaion lehen hiruhilekoan.

## JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2014		2015		
			III	IV	I	Apirila	Maiatza
<b>Industria</b>							
Industria produkzioaren indizea	-3,1	1,4	3,3	1,9	0,3	5,4	---
Industria giroaren indizea	-21,2	-12,6	-9,6	-10,4	-6,0	2,1	-4,0
ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	71,7	76,1	75,6	76,9	78,9	---	82,4
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-4,5	-2,2	-2,1	-2,0	-1,4	-0,8	-0,1
<b>Eraikuntza</b>							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	-23,7	-3,5	-4,1	-2,0	0,8	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak (etxeak)	-12,0	2,0	145,9	-55,8	-1,1	---	---
Etxebizitzaren salerosketak	-12,4	8,1	19,8	35,0	17,9	0,3	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-12,0	-3,2	-1,9	-1,5	-0,6	-1,0	-0,2
<b>Zerbitzuak</b>							
Hegazkinen bidezko trafikoa	-9,1	5,3	8,5	4,4	4,0	7,0	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	-3,1	4,0	4,8	8,6	9,7	8,2	---
Hoteletako okupazioa	44,3	46,4	64,1	41,7	32,4	46,0	---
Negozio zifren indizea	-3,6	4,2	3,1	5,6	1,7	---	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	-5,0	1,7	2,5	3,5	1,2	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-2,0	1,4	1,6	2,2	2,6	2,8	3,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Energia eta Turismo Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriaren erritmoa are gehiago moteldu zen eta balio erantsiaren gehikuntza %0,2 baino ez zen izan lehen hiruhilekoan, aurreko epealdietakoak baino nabarmen txikiagoa. Hala ere, galgatze horren arrazoia EAEko enpresa handi batzuek bizi zuten egoera iragankorra da, urte hasieran bete-betean lan egin ez dutelako, baina datozen hiruhilekoetan egin egingo dutelako. Beraz, etorkizunari buruzko igurikimenetan eraginik ez duen aldi baterako moteltzea da hori.

Izan ere, industria produkzioaren indizeak jardueraren leuntze garrantzitsua hauteman zuen aurtengo lehen hilekoetan, bereziki energiako ondasunen ekoizpenean fokatuta, baina bitarteko eta ekipamendurako ondasunetan ere nabaritzen zena. Hala ere, apirileko datuak argitaratu zirenean, jarduera horien suspertze handia hauteman zen, energiako eta ekipamendurako ondasunen kasuan hazkundea %10etik gorakoa izan baitzen.

Sektorearen igurikimenak ere onak dira. Izan ere, industria giroaren indizeak -6,0ko balioa hartu zuen 2015eko lehen hiruhilekoan, azken zazpi urteko onena, baina are hobea izango da bigarren hiruhilekoan, dagoeneko ezagutu diren apirileko (2,1) eta maiatzeko (-4,0) datuak kontuan izanda. Eskari zorroz eman dituzten erantzunak gero eta positiboagoak dira, nahiz eta oraindik gehiago diren txikiegia dela uste dutenak. Saldu gabe dauden produktu amaituen stocka oso txikia da oraindik. Azkenik, etorkizuneko ekoizpenaz eskaini dituzten iritziak baikorrak dira, erantzun positiboak negatiboak baino gehiago direlako. Halaber, enpleguaren aurreikuspenek iradokitzen dute laster lanpostuak sortuko direla industrian.

Zalantzarik gabe, susperraldiaren protagonista behinena zerbitzuak dira, balio erantsia %2,8 areagotu zuelako urte arteko tasan, dagoeneko oso garrantzitsua zen laugarren hiruhilekoko emaitza bi hamarrenetan gaindituz. Sektorearen hobekuntza orokorra izan zen eta berau osatzen duten hiru jarduera taldeek %2,5eko tasa gainditu zuten. Azpimarratzekoa da merkataritza, ostalaritza eta garraioaren multzoa, urte arteko tasa %3,0ra igo zuelako, aurreko datua berdinduz. Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituenak %2,7 handitu zuen bere balio erantsia, aurreko datua baino hamarren bakar bat gutxiago. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek %2,6ko emaitza izan zuten.


Sektorearen koiunturako datuak Eustaten kontu ekonomikoetan hauteman den bizitasuna baieztatzen dute, bereziki turismoari dagokionez. Izan ere, aireportuetatik bidaiatu zuten pertsonen kopurua %4,9 hazi zen aurtengo lehen lau hilekoetan, 2014. urte osoan lortu zen %5,3aren antzeko zenbatekoa delarik. Orobat, hoteletan igarotako gaualdien kopurua %8,0 baino gehiago handitu zen 2015eko lehen lau hilekoetan, 2013an eta 2014an eskuratu ziren datuak nabarmen gaindituz. Sektorearen beste adierazle global batzuek emaitza positiboa baina apalagoa seinalatzen dute aurtengo hasierarako. Alde batetik, INEK kalkulatu duen zerbitzuen negozio zifra %1,7 areagotu zen lehen hiruhilekoan, aurreko balioetara iritsi gabe. Beste aldetik, Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiunturako indizeak %1,2ra mugatu zuen gehikuntza tasa.

EAEko ekonomiaren bizkortzeak enpleguaren sorrera nabarmena ekarri zuen berarekin. Zehazkiago, kontu ekonomikoek zenbatesten duten lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua %1,4 gehitu zen lehen hiruhilekoan, aurreko epealdian baino lau hamarren gehiago. Tasa


horrek esan nahi du 12.400 lanpostu sortu zirela azken urtebetean. 2007ko amaierara itzuli behar da tamaina horretako balioak aurkitzeko.

### Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Zerbitzuek bereganatu zituzten azken urtebetean sortu ziren lanpostu ia guztiak. Hain zuzen ere, sektore horren aldakuntza tasa %2,4 izan zen, aurreko urtean baino 15.000 lanpostu garbi gehiago zituela. Lehen arloak ere ekarpen positiboa egin zuen, %1,3koa, ekonomiara 160 lanpostu berri ekarriz. Aitzitik, bai industriak bai eraikuntzak lanpostuen kopurua murriztu zuten berriro, nahiz eta aurreko hiruhilekoetan baino lanpostu gutxiago galdu zuten. Lehen kasuan, jaitsiera tasa %1,5 izan zen (2.700 lanpostu) eta bigarren kasuan lanpostuen kopurua ia egonkortu da (%-0,1).

Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuek antzeko bilakaera iradokitzen dute, lehen hiruhilekoan %1,6ko gehikuntza izan baitzuen, baina ondorengo bi hilekoetan hazkunde tasa are gehiago hazi zen, maiatzean %2,1ean kokatu arte. Estatistika horrek adierazten du industriaren enplegua egonkortzeko puntuan dagoela (%-0,1 maiatzean), azken hilekoetako hobekuntza garrantzitsuari esker. Eraikuntza ere (%-0,2) afiliazioa handitzetik hurbil egon daiteke. Kontu ekonomikoetan bezala, enpleguaren bultzada zerbitzuek eragin dute, maiatzean afiliazioaren kopurua %3,0 gehitu zutelako. Sektore horren adar guztiek, finantza jarduerak izan ezik, afiliatuen kopurua areagotu zuten urte arteko tasan. Bereziki esanguratsuak dira ostalaritzan

(%3,5), hezkuntzan (%4,6) eta jarduera administratiboetan (%5,5) lortu ziren gehikuntzak, afiliatu kopuru handienak biltzen dituzten adar batzuk aipatzearen. Urte arteko aldakuntza tasa handiena jarduera artistiko eta aisialdikoek jaso zuten, %6,2 hazi zirelako, nahiz eta sektorean duten pisua nahiko txikia den.

BPGaren eta enpleguaren gehikuntzen konbinaketak itxurazko produktibitatearen irabazia %0,7an kokatu zuen lehen hiruhilekoan. Datu hori apal samarra da, hala aurreko balioekin alderatzen denean nola 1995etik jaso duen batez bestekoarekin (%1,1) erkatzen denean. Produktibitatearen apaltze hori industriaren eskutik iritsi zen, laugarren hiruhilekoan %3,0ko irabazia lortzetik 2015eko lehen hiruhilekoan %1,7 haztera igaro baita, azken epealdi horretako balio erantsia oso gutxi hazi zelako, iragankorra izango dela uste den gertakariak baldintzatuta. Eraikuntza (%0,7) eta zerbitzuak (%0,3) balio historikoetatik hurbil kokatu ziren (bi kasuetan 1995etik gaur arte izan duten batez bestekoa %0,6 da).

## Barne eta kanpo eskaria

Aurreko hiruhilekoetan gertatu zen bezala, 2015eko hasieran barne eskariak gorarazi zuen EAEko ekonomia, BPGari eginiko ekarpenaren terminoetan kanpo saldoak irudi neutroa eskaini zuen bitartean. Zehatz-mehatz adierazita, barne eskariaren urte arteko gehikuntza tasa %2,1 izan zen, hazkundearen ekarpenetan 2,2 puntura iritsi zena. Zenbaki horiek garrantzitsuak dira, baina hamarren batean bakarrik hobetzen dute 2014ko laugarren hiruhilekoan jasotako emaitza, hazkunde erritmoa egonkortzen ari dela iradokiz. Beste aldetik, kanpo merkataritzako zenbatekoak, hala esportazioenak nola inportazioenak, gutxitu egin ziren urte arteko tasan, energia alorreko enpresa handi baten geldialdiak baldintzatuta, hiruhilekoko datuetan eragin handia baina iragankorra utziz.

Urratsez urrats, barne eskaria osatzen duten bi atal nagusien artean nolabaiteko oreka lortzen ari da, zeren eta dagoeneko aurreko hiruhilekoetan azken kontsumoko gastuak erakusten zuen bizitasun handiari orain kapital eraketa gordinaren hazkunde bizkortua erantsi baitzaio. Zehazkiago adierazita, azken kontsumoak %2,3ko urte arteko aldakuntza jaso zuen, aurreko hiruhilekokoaren (%2,4) oso antzekoa baita. Bizitasun horren atzean, familien kontsumoaren sendotasuna dago, ordurako esanguratsua zen hazkunde tasa %2,9ra igo zuelako, aurreko emaitza hiru hamarrenetan gaindituz. Kontsumo pribatuaren bultzada hori azaltzen duten arrazoien artean, badaude erosteko ahalmenarekin zerikusia dutenak, hala nola epealdi horretan lortutako enplegu sorrera, kontsumoko ondasunen merkatzea, soldaten igoera txikia eta finantza aberastasunaren irabazia. Aurrekoaz gain, konfiantza berreskuratu izanak eta

kreditu bat lortzeko orduan, banku sistema onbideratuago batean, gaur egun dauden erraztasun handiagoak ere kontsumoa areagotu dute.

## ESKARIAREN ALDAGAIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2014				2015
			I	II	III	IV	I
<b>BPG erreala</b>	<b>-1,7</b>	<b>1,2</b>	<b>0,5</b>	<b>0,9</b>	<b>1,4</b>	<b>1,9</b>	<b>2,2</b>
Gastua azken kontsumoan	-1,1	1,4	0,3	1,2	1,7	2,4	2,3
- Familien gastua kontsumoan	-1,0	1,6	0,2	1,4	2,2	2,6	2,9
- Adminis. gastua kontsumoan	-1,4	0,9	1,0	0,8	-0,1	1,8	0,2
Kapital eraketa gordina	-4,6	0,0	-0,9	0,0	0,2	0,6	1,3
- Ekipamendu ondasunak	-3,1	2,2	0,4	1,5	2,9	4,0	3,8
- Gainontzeko inbertsioa	-5,3	-1,0	-1,5	-0,6	-1,0	-0,7	0,3
Barne eskaria	-1,9	1,1	0,1	1,0	1,4	2,0	2,1
Esportazioak	0,9	3,4	3,3	2,1	3,6	4,7	-1,4
Inportazioak	0,4	3,2	2,6	2,1	3,4	4,7	-1,4

Iturria: Eustat.

Kapital eraketa gordinak, berriz, nabarmen bizkortu zuen bere hazkunde erritmo ahula eta %1,3an kokatu zuen urte arteko tasa, oraindik apala dena, baina hobetzeko joera garbia erakusten duena. Agregatuaren hobekuntza hori gainontzeko inbertsioa delakoak azaltzen du, eraikuntzan eginiko inbertsioa barnean hartzen duenak, zazpi urtean lehen aldiz urte arteko gehikuntza bat lortu zuelako, oso mugatua (%0,3) izan arren. Beste osagaiak, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak, ia bere horretan utzi zuen aurreko bizitasuna eta %3,9ko gehikuntza eskuratu zuen, laugarren hiruhilekoko baina bi hamarren bakarrik gutxiago.

Kapital eraketa gordinari buruzko koiunturako informazioak agregatu makroekonomiko horren indartzea baieztatzen du 2015eko lehen hiruhilekoan. Izan ere, ekipamendurako ondasunen ekoizpenak, urtarrilean eta otsailean makalaldi bat igaro ondoren, indarra hartu zuen martxoan (%5,3) eta erritmoa bizkortu zuen apirilean (%10,0), suspertzeko ibilbidea marraztuz. Era berean, ondasun mota horren inportazioa %13,6 hazi zen lehen hiruhilekoan, azken lau urteko gehikuntzarik handiena baita. Azkenik, zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa %20,0 baino zertxobait gehiago hazi zen aurtengo lehen bost hilekoetan, espainiar gobernuak industria ibilgailuak berritzeko ematen dituen diru laguntzek bultzatuta. Beste aldetik, eraikuntza

Jardueraren suspertzeak bide eman zion eraikuntzan eginiko inbertsioari gorago aipatu den gainontzeko inbertsioaren igoera lortzeko.

Dagoeneko aipatu denez, kanpo saldoak irudi neutroa eskaini zuen BPGaren hazkundeari eginiko ekarpenaren terminoetan. Ia bi urtez neurri handiko gehikuntzak lortu eta gero, 2015eko lehen hiruhilekoan pausu bat atzera eman zen inguruneko merkataritza harremanen tamainan, eta bai esportazioak bai inportazioak %1,4 murriztu ziren urte arteko tasan, termino errealetan. Jaitsiera are esanguratsuagoa izan zen termino nominaletan eta %3,9ra iritsi zen esportazioen kasuan eta %3,8ra, berriz, inportazioenean. Diferentzia handi horiek adierazten dute salerositako produktuen prezioak nabarmen merkatu zirela urtebete bat lehenago zeudenen aldean. Bistan da petrolioak nazioarteko merkatuetan izan duen salneurriaren bilakaerak azaltzen duela merkatze horren zati handi bat, baina gainontzeko produktuek ere eutsi diote prezioari merkatu kuotarik ez galtzeko. Hala eta guztiz ere, kanpo saldoak EAEn izan duen jarrera neutroa Eurogunean eta Europar Batasunean gertatu zen emaitzatik aldendu zen, zeren eta bi eremu horietan kanpo saldoak hiruna hamarren kendu baitzizkion hazkundeari, inportazioen bultzada handiagoa izan zelako.

Analisia atzerriarekin eginiko salerosketetan fokatzen bada, esportazio nominalen urte arteko aldakuntza tasa %-7,0 izan zen eta inportazioenaren beherakada %11,3ra iritsi zen. Jaitsiera guztia energiako produktuen bilakaeraren ondorioa izan zen, saldu eta erosi ziren gainontzeko ondasunen multzoak hazkundeak izan zituelako, hala esportazioen atalean, nola, bereziki, inportazioei dagokienean.

Zehazkiago adierazita, atzerrian saldu ziren energiako produktuen balioa %58,6 jaitsi zen 2015eko lehen hiru hilekoetan eta produktu horien erosketena %43,1. Ezohiko narriadura hori azaltzen duten faktore nagusiak bi dira. Alde batetik, petrolioak eta beraren eratorriek azken urtebetean ezagutu duten merkatze biziak azken emaitza baldintzatu dute, bereziki inportazioen kasuan. Izan ere, inportazioen balioa %43,1 jaitsi zen, aipatu den bezala, baina inportatutako tonak aurreko urtekoak baino %1,3 gutxiago bakarrik izan ziren. Esportazioei dagokienez, esportatutako tonak 2014ko hiruhileko berean saldutakoak baino %19,4 gutxiago izan ziren. Energiako produktuen merkataritzak izan zuen jaitsiera garrantzitsua azaltzen duen beste eragilea, batez ere esportazioen kasuan, Petronorrek otsailean eta martxoan erabaki zuen geldialdia da. Geldialdiaren arrazoiak segurtasunaren esparruan instalazioak hobetzea eta etorkizunerako erronkei aurre egiteko prestatzea izan zen.

Energiakoak ez ziren esportazioek gehikuntza tasa positiboa, baina txikia (%0,9), eskuratu zuten. Jarduera adarren bilakaera heterogeneoa izan zen. Izan ere, metal arruntak eta beren manufakturrek segida eman zieten aurreko epealdietako emaitza onei eta salmentak %7,4

gehitu zituzten. Era berean, makinak eta tresnen salmentak ere hazkunde esanguratsua (%8,1) lortu zuen lehen hiruhilekoan. Aitzitik, garraio materialak, EAEko egitura esportatzailean pisu gehien duen atala baita, %6,1 murriztu zituen salmentak, ibilgailu automobil gutxiago (%-4,3) eta, bereziki, itsasontzi gutxiago (%-38,0) esportatu zelako. Gogoratu behar da azken atal honek gorabehera handiak izaten dituela.

EAEko produktuen salmentak atzerriko herrialdeetan izan zuen jaitsiera ekonomia garatuetan eta garapen bidean daudenetan gauzatu zen. Hain zuzen ere, ELGE erakundeko herrialdeetan, esportazio guztien %79 biltzen baitute, saldutakoa %3,9 jaitsi zen 2015eko lehen hiruhilekoan, aurreko bi hiruhilekoetan urte arteko hazkunde sendoak jaso eta gero. Beste aldetik, azaleratzen ari diren merkatuetan saldutakoaren beherakada nabarmen handiagoa izan zen eta %17,3ra iritsi zen. Bi kasuetan, erregai mineralen merkatzeak garrantzia handia izan zuen azken emaitzan, baina eragin hori biziagoa izan zen garapen bidean dauden herrialdeetan, merkatu horietara bideratzen ziren esportazio guztietatik produktu horiek %16,2 biltzen zuten 2014ko lehen hiruhilekoan, baina urtebete bat geroago pisu hori %4,6ra mugatu da. Produktu mineral horiek kontuan hartu gabe, emaitza hobea izan zen ELGEn munduko gainontzeko eremuan baino. Zehatz-mehatz, ELGEra bideratutako produktu ez-energetikoak %2,8 hazi ziren eta eremu horretatik kanpoko herrialdeetan %5,8 murriztu ziren.

Herrialde garatu nagusien artean, Italian saldutakoak bakarrik erakutsi zuen sendotasun handia aurtengo lehen hiruhilekoan, urte arteko gehikuntza tasa %38,1era iritsi zelarik, aurreko hiruhilekoan lortutakotik hurbil. Atalen analisi zehatzak adierazten du bizitasun hori, neurri handi batean, trenbide materialaren salmentaren ondorioa dela, herrialde horretara esportatutakoaren %12,0 biltzen baitu. Orobat, automobilgintzari lotutako beste atal garrantzitsu batzuek (ibilgailu automobilak, eta kautxua eta bere manufakturak) eta makineriak ere gehikuntza biziak lortu zituzten.

Kontuan hartuta erregai mineralek hiruhilekoaren analisia desitxuratzen dutela, esportazioen bilakaera aztertzeke orduan beharrezkoa da energiaren bestelako datuetan ere arreta jartzea. Zentzu horretan, Europar Batasunera eta AEBetara bideratutako esportazio guztiak, bi kasuetan, %6,0 murriztu baziren ere, energiakoak ez diren produktuen salmentan alde garrantzitsuak ikusten dira. Izan ere, Europar Batasunean ez zen aldakuntzarik jaso (%0,0), baina AEBetan %23,2 hazi ziren.

Energiako ondasunen esportazioaren balioa oso nabarmen jaitsi delako testuinguru horretan, deigarria da produktu horiek Erresuma Batuan lortu duten emaitza ona, salmentak %170,0 handitu zirelako. Dena dela, produktu horiek EAEko enpresek herrialde horretan esportatzen



duten guztiaren %3,4 baino ez dira. Frantziako eta Alemaniako emaitzak zertxobait negatiboak izan ziren, hala esportazioen guztizkoan nola energiaren bestelako produktuen salmentan.

## ESPORTAZI OEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2013	2014	2014			2015	
			II	III	IV	I	I
<b>GUZTIRA</b>	<b>-0,3</b>	<b>9,9</b>	<b>-0,6</b>	<b>11,2</b>	<b>18,0</b>	<b>-7,0</b>	<b>4.995.932</b>
ELGE	1,2	9,4	-1,8	14,5	15,6	-3,9	3.952.316
Europar Batasuna	-0,8	12,9	3,6	15,0	19,9	-6,0	3.192.949
Frantzia	-1,5	0,8	-7,8	5,7	9,4	-1,6	798.872
Alemania	1,8	7,0	-1,6	21,6	-1,7	-1,9	764.555
Erresuma Batua	-8,7	11,2	11,1	0,8	18,3	-0,5	314.584
Italia	-2,5	9,9	4,9	10,4	36,2	38,1	302.650
AEB	8,7	18,9	19,3	4,8	45,4	-6,0	332.933
ELGETik kanpokoak	-5,0	11,7	3,8	0,4	26,5	-17,3	1.043.616

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Garapen bidean dauden herrialdeetan, erregai mineralek esportazioen emaitza baldintzatu zuten, baina produktu horiek kontuan hartu gabe ere salmentak gutxitu ziren urte arteko tasan (%-5,8). Atal nagusien artean, makinerian jaitziera txikia hauteman zen. Talde horrek EAEko produktuen esportazioaren ia herena biltzen du. Halaber, burdina eta altzairuaren galdaketaren salmentak behera egin zuen (%-22,4), baina oso nabarmen areagotu zen galdaketa manufacturena (%44,2). Txinaren kasuan, jaitziera %-19,7ra iritsi zen eta erregai mineralek ez zuten inolako eraginik izan emaitza horretan. Energiako ekoizkinen bilakaera ez zen erabakigarria Errusiarekin gauzatu zen merkataritzaren emaitzan ere, aurreko urtearekiko ia ezer aldatu ez zelako (%-1,0). Azkenik, Brasilerako esportatutakoaren balioa ia erdia (%-46,0) gutxitu zen, aurreko urtearekiko ez den erregaien ezohiko esportazioa egin zelako 2014an. Hala eta guztiz ere, energiaren bestelako esportazioak %32,2 murriztu ziren, aurreko urtean bidalitako trenbide ibilgailuen salmenta aurreko urtearekiko ez delako.

Inportazioei dagokienez, erregai mineralek protagonismo handia izan zuten berriro, beren balioa %43,1 jaitzi bazen ere, eta atzerrian erositako guztiaren laurdena bildu zuten. Aitzitik, inbertsiorako ondasunen eta automobilen inportazioa oso modu garrantzitsua bizkortu zen 2015eko hastapenetan. Zehatz-mehatz adierazita, makinak eta tresnak biltzen dituen atala %12,8 hazi zen eta garraio materialarena, berriz, %21,5. Plastikoen eta kautxuaren erosketa

ere modu esanguratsuan hazi zen (%23,0). Beste atal garrantzitsu batzuek ere portaera ona izan zuten, hala nola metal arruntak eta beren manufaktura (%1,7) eta gainontzeko manufaktura (%7,2).

EAEko ekonomiarentzat atzeritik ekarritako produktuen horniduran, Euroguneko herrialdeak lider izan ziren, guztien buru Alemania eta Frantzia zeudelarik. Bi herrialde horien batuketak EAEko inportazio guztien laurdena biltzen du. Alemaniatik, batez ere, makinak eta tresnak, eta ibilgailu automobilak inportatu ziren. Frantzian, berriz, burdina eta altzairu galdaketak, eta makinak eta tresnak erosi ziren nagusiki. Hirugarren hornitzaile nagusia Txina izan zen, makinerian espezializatu baita. Herrialde horren ondoren, Erresuma Batua kokatu zen, EAEko ekonomiari ia Mexikok eta Errusiak beste erregai mineral saltzen dizkiola. Herrialde garatuetatik iritsi ziren inportazio guztien %69,4, eta Europar Batasuneko herrialdeen inguruan metatu zen erosketaren %58,1.

## INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2013	2014	2014			2015	
			II	III	IV	I	I
<b>GUZTIRA</b>	<b>1,8</b>	<b>9,9</b>	<b>10,2</b>	<b>20,1</b>	<b>-0,5</b>	<b>-11,3</b>	<b>3.827.605</b>
ELGE	1,0	15,0	-1,2	33,4	1,3	-10,3	2.655.864
Europar Batasuna	-0,8	30,3	13,5	63,8	14,3	-4,7	2.222.929
Frantzia	0,9	-0,7	-3,8	-3,2	-0,1	11,3	445.388
Alemania	-2,3	5,9	-2,9	5,1	13,4	2,4	514.105
Erresuma Batua	-2,6	180,0	59,9	418,7	283,9	80,2	223.066
Italia	-11,6	2,9	10,8	2,7	-2,4	4,7	192.724
AEB	40,6	-52,3	-51,4	-60,1	-80,1	-23,6	120.656
ELGETik kanpokoak	3,3	0,9	29,8	-1,2	-4,7	-13,7	1.171.741

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Atzerrian saldutakoaren eta bertatik ekarritakoaren arteko merkataritza saldoa 1.168 milioi eurokoa izan zen 2015eko lehen hiruhilekoan. Balio hori garrantzitsua da, baina aurreko hiruhilekoko baino askoz ere txikiagoa da. Energiaren bestelako superabita 1.838 milioi eurora iritsi zen eta energiaren defizita 702 milioi eurora, kasu horretan azken urteetako txikienetako bat delarik. Aipatua izanenez, energiaren merkataritza defizitaren jaitsieran paper erabakigarria jokatu zuen nazioarteko merkatuetan erregai mineralak izan zuten merkatze handiak.

## Prezioak

Prezio adierazleek beheranzko joerari jarraipena eman zioten eta guztiek aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten 2015eko lehen hiruhilekoan. Esate baterako, BPGaren deflatorea, hiru hiruhilekoz segidan balio positiboak markatu ondoren, %-0,4an kokatu zen aipatu den epealdi horretan, berau osatzen duten hiru atal nagusien jaitsierak baldintzatuta. Atal horien artean, azpimarratu behar da kontsumo pribatuaren deflatoreak erakutsi zuen bilakaera, iazko laugarren hiruhilekoan suspertze garrantzitsua izan eta gero, nabarmen egin zuelako behera, %1,0tik urte hasierako %-0,6ra igarota.

Kontsumoko prezioen bilakaerari dagokionez, horiek berriro jaso zituzten emaitza negatiboak lehen hiruhilekoan, iazko azarotik hileko guztietan gertatu den bezala. Beraz, inflazioan dauden presioak oso ahulak dira oraindik. Are gehiago, urtarrilean, KPIaren urte arteko tasa serie historiko osoko baliorik apalenean kokatu zen, %1,0ko jaitziera batekin. Hala eta guztiz ere, horrelako balio txikiak jaso eta gero, inflazioak goranzko norabidea hartu zuen eta zertxobait egin zuen gora, maiatzean %0,0an kokatu arte. Neurri batean, erregaien garestitzeak azaltzen du joera aldaketa hori.

### KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2013	2014	2014		2015		Ekarpena
			IV	I	Maiatza		
<b>Inflazio osoa (%100)</b>	<b>1,6</b>	<b>0,2</b>	<b>-0,2</b>	<b>-0,7</b>	<b>0,0</b>	<b>0,0</b>	
<b>Azpiko inflazioa (%81,8)</b>	<b>1,6</b>	<b>0,3</b>	<b>0,2</b>	<b>0,3</b>	<b>0,6</b>	<b>0,5</b>	
- Elikagai landuak (%14,1)	3,1	0,0	-0,1	0,2	1,1	0,1	
- Industria ondasunak (%26,2)	0,5	0,1	-0,2	-0,1	0,3	0,1	
- Zerbitzuak (%41,5)	1,8	0,6	0,6	0,6	0,7	0,3	
<b>Hondar inflazioa (%18,2)</b>	<b>1,4</b>	<b>-0,6</b>	<b>-1,8</b>	<b>-5,5</b>	<b>-2,9</b>	<b>-0,5</b>	
- Landu gabe elikagaiak (%7,0)	3,7	-1,2	0,8	-0,1	2,3	0,2	
- Energia (%11,2)	0,0	-0,1	-3,4	-8,8	-6,2	-0,7	

Iturria: INE.

Zehazkiago, petrolio gordinaren prezioak 2014ko bigarren erdian hasi zen beheranzko joerari eutsi zion urte hasieran, urtarrilaren erdialdean Brent motako upelak 45 dolarren inguruko balio

minimoetan kokatu arte. Hori horrela izanda eta prezio horiek bultzatuta, inflazioak ere balio apalenak markatu zituen, ondorengo hilekoetan zertxobait igotzeko, petrolioaren salneurriak 60 dolarretara igo eta gero.

Espainiako inflazioarekin gertatu zen bezala, Euroguneko inflazioak ere, oso maila apaletan jarraitzen duen arren, jaitsiera leundu du eta baita inflazio tasa positiboa (%0,3) berreskuratu ere maiatzean. Horren ondorioz, EAEn eta Eurogunearen arteko inflazio tartea hiru hamarrenetan kokatu zen hileko horretan. Europako kontsumoko prezioen bizkortze arin horrek epe ertainean segituko duela aurreikusten da, moneta politikaren bultzadari eta eskariaren hobekuntzari esker, eta hazkunde tasak %2ko erreferentziara urratsez urrats hurbilduko direla espero da.

KPIak azken hilekoetan erakutsi duen goranzko bilakaeraren arrazoi nagusia petrolioaren garestitzea bada ere, berauek kontuan hartzen ez dituen azpiko inflazioa ere hamarren batzuk igo zen maiatzean urte arteko tasan, %0,6an kokatu arte. Hori dela eta, aurreko bost hilekoetan erakutsi zuen egonkortasunari amaiera eman zion. Adierazle hori osatzen duten atal guztiek tasa altuagoak jaso zituzten, baina azpimarratzekoa da landutako janarien (%1,1) eta, neurri txikiagoan, industria ondasunen bizkortzea.

Era berean, hondar inflazioaren bilakaera ez zen aurreko hilekoetakoa bezain negatiboa izan eta maiatzean %-2,9an kokatu zen. Energiako produktuen ekarpena oso garrantzitsua da oraindik, beren prezioak %6,2 gutxitu zituztelako aurreko urteko epealdi beraren aldean. Aitzitik, landu gabeko elikagaiak nabarmen garestitu ziren 2014ko hileko beraren aldean eta %2,3ko aldakuntza tasa jaso zuten.

KPIaren analisia talde nagusien arabera egiten denean, argi geratzen da oraindik bost taldek salneurriak jaitsi dituztela aurreko urteko mailarekiko. Beraien artean, etxebizitza eta garraioa nabarmendu dira, bi kasuetan urte arteko tasa %-2,0n dagoelako. Lehen kasuan, tasa hori aurreko hilekokoaren antzekoa da, gasaren merkatzea argindarraren garestitzeak konpentsatu zuelako. Bigarren kasuan, erregaien garestitzeak taldearen jaitsiera leuntzeko balio zuen. Bi talde horiekin batera, komunikazioak (%-1,8) ere aipatu behar dira, maiatzean aurreko hilekoetako beherakada handietatik urrunduz zelako. Salneurriak gutxitu zituzten beste taldeek (aisialdia eta kultura, eta medikuntza) erritmo txikiagoan egin dute. Beste muturrean, hezkuntzak igo ditu gehien bere prezioak (%2,7) azken urtebetean, ondoren *besteak* (%1,6) izenekoa eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (%1,5) daudelarik.

**EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2014			2015	
			II	III	IV	I	Maiatza
<b>Indize orokorra</b>	<b>1,6</b>	<b>0,2</b>	<b>0,5</b>	<b>-0,1</b>	<b>-0,2</b>	<b>-0,7</b>	<b>0,0</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,9	-0,6	-1,3	-1,9	0,2	0,0	1,5
Edari alkoholdunak eta tabakoa	6,0	1,0	1,7	0,1	-0,1	0,8	1,1
Jantziak eta oinetakoak	0,1	0,2	0,3	-0,1	0,3	0,1	0,5
Etxebizitza	1,1	2,0	3,0	2,0	1,1	-1,3	-2,0
Etxeko hornidura	2,0	-0,4	-0,8	-0,1	-0,2	0,2	0,2
Medikuntza	7,5	4,3	8,2	0,6	0,0	-0,2	-0,4
Garraioa	0,3	-0,5	1,1	0,1	-2,1	-4,9	-2,0
Komunikazioak	-4,3	-6,1	-5,8	-5,9	-5,7	-4,6	-1,8
Aisia eta kultura	1,6	-1,2	-0,7	-1,8	-1,3	-0,3	-0,5
Irakaskuntza	3,0	2,7	2,7	2,6	2,8	2,6	2,7
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,1	0,7	0,9	0,7	0,4	0,3	0,2
Besteak	2,1	1,2	1,2	1,5	1,4	1,6	1,6

Iturria: INE.

Industria ondasunen prezioen indizeari dagokionez, nolabaiteko inflexio gunea hautematen da bilakaeran, zeren eta urte hasierako tasa %-3,5 izan bazen, ezagutu den azken datua (apirilkoa) %-1,5ean kokatua zen, petrolio gordinaren garestitzearengatik. Hori horrela izanda, IPRIaren beherakada leundu zen, batez ere energia taldearen bilakaeragatik, oraindik oso tasa txikiak izan zituelako, baina aurreko hiruhilekokoak baino altuagoak. Gainontzeko osagaiek ia ez zuten emaitza ezer aldatu.

**HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014	2015 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	3,6	2,7	1,3	0,7	0,6
- Urtean zehar sinatutakoak	3,4	2,0	1,1	0,5	0,9
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	3,8	2,7	1,3	0,8	0,6
- Enpresako hitzarmenak	3,1	2,6	1,2	0,6	0,6

(\*) 2015ko apirila arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, lan hitzarmenek oraindik igoera txikiak onartzen dituzte eta aurreko epealdietako joerari jarraipena eman diote, soldaten euspenari atxikita. Hala ere, urtean zehar sinatu diren hitzarmenek (%0,9) 2014koek eta gaur egun indarrean dauden hitzarmenenean (%0,6) baino igoera handiagoak adostu dituzte. Dena dela, oraindik oso gutxi dira sinatu diren kontratu berriak.

## Aurreikuspenak

Datozen epealdietan munduko hazkundera sendotuko dela espero da. Consensus Forecasts-en arabera, mundua %2,5aren inguruan haziko da 2015ean eta %3,1, berriz, 2016an, baina hazkunde horrek alde handiak izango ditu eremu bakoitzean. Izan ere, azalerraten ari diren herrialdeek egonkortasuneko joera erakutsiko dute 2015ean zehar eta zertxobait bizkortuko dira 2016an. Txinaren hazkunde apalagoak eta petrolioaren merkatzeak eragingo duen diru sarreren jaitsierak herrialde multzo horren joera kaltetuko dute. Beste aldetik, ekonomia aurreratuetan, jarduerak gora egingo duela aurreikusten da, estatubatuar ekonomiaren hazkundera eta, neurri txikiagoan, Europako herrialdeen bultzadan oinarrituta.

### EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2014	2015	2016	2014	2015	2016
Munduko ekonomia	2,7	2,5	3,1	3,0	2,6	3,1
AEB	2,4	2,2	2,8	1,6	0,2	2,1
Kanada	2,4	1,6	2,2	1,9	1,1	2,1
Japonia	-0,1	1,0	1,7	2,7	0,7	1,0
Eurogunea	0,9	1,5	1,8	0,4	0,2	1,3
Europar Batasuna	1,3	1,8	2,0	0,6	0,3	1,4
Alemania	1,6	1,9	2,0	0,9	0,5	1,7
Espainia	1,4	2,9	2,6	-0,2	-0,3	1,2
Frantzia	0,2	1,2	1,6	0,5	0,2	1,2
Herbehereak	0,9	1,9	1,7	1,0	0,5	1,3
Italia	-0,4	0,7	1,2	0,2	0,2	0,9
Erresuma Batua	2,8	2,4	2,5	1,5	0,3	1,6
Asia eta Ozeano Barea	4,6	4,7	4,9	2,7	1,7	2,2
Ekialdeko Europa	1,6	-0,3	2,0	7,4	8,6	5,7
Amerika Latinoa	1,1	0,4	2,0	11,3	14,1	11,9

Iturria: Consensus Forecast (2015eko ekaina).

Ekonomia aurreikuspenen inguruan ziurgabetasun handia dago eta beheranzko arriskuak ez dira gutxi. Hala ere, arrisku horiek, oro har, orekatutzat jotzen dira. Kezka nagusiak Greziaren etorkizun politiko eta ekonomikoa, eta Ukrainian, Ekialde Ertaineko herrialdeetan eta Afrikako iparraldean sortu diren tentsio geopolitikoak dira. Herrialde horietako arazoak larriagotzen badira, lasta garrantzitsua izan daiteke Eurogunearen eta munduko ekonomiaren bilakaerarako. Aipatzen den beste mehatxu bat AEBetako moneta politika normalizatzea da, finantza merkatuetan tentsioak sortu ditzakeelako. Inflazioaren gainean zeuden arriskuak apaldu dira, Europako Banku Zentralak (EBZ) hartu dituen neurrien ondorioz.

Estatubatuar ekonomiaren hazkundera sendoa izango da bai aurten bai 2016an. AEBak munduko ekonomiaren hazkunderaren bultzagile nagusiak izango dira. Herrialde horretako hazkunde tasa %2,2aren inguruan kokatuko da 2015ean eta %2,8an, berriz, 2016an, Consensus Forecasts-ek egin duen aurreikuspenaren arabera. Beste erakunde batzuk baikorrakoak dira. Esate baterako, NDFk herrialde horretako hazkundera %3,1ean kokatu du bi urteetarako. Sendotasun horren oinarrian, gastu pribatuaren igoera egongo da, lan merkatuaren hobekuntzak eta inflazio apaleko testuinguru batek lagunduta. Halaber, petrolioaren merkatzeak diru sarrera errealak eta kontsumitzaileen konfiantza hobetuko ditu. Aurreko guztiari gehitu beharko zaio gaur egun ezartzen ari den moneta politika egokitzailea.

Eurogunearen bilakaera ekonomikoz egin diren aurreikuspenak baikorrak dira eta epe laburrean hazkundera sendotuko dela aurreratzen dute. Consensus Forecasts-ek aurreikusi duenez, moneta batasuna %1,5 haziko da 2015ean eta hazkunde erritmo hori zertxobait areagotuko da 2016an, %1,8ra arte. Petrolioaren salneurri apalak, euroaren balio galerak eta EBZk interes tasaz eta likideziaz bideratu dituen politiketek bizkortzeko joera hori lagunduko dute. Izan ere, finantzaziorako baldintzek kreditua erraztuko dute, enpresarien konfiantza areagotuko dute eta inbertsioa sustatuko dute. Beste aldetik, lan merkatuak hobera egingo du eta egoera horrek familien kontsumoa handitzeko balioko du. Kanpo merkataritzari dagokionez, esportazioek bizkortze neurritsua izango dutela aurreikusten da, nazioarteko testuinguru ekonomikoa hobea izango delako.

Gorago aipatu diren aldeko faktoreen multzoak Europako moneta batasunaren herrialdeen hazkundera lagunduko dute. Hala ere, eragin positiboa ez da tamaina berekoa izango Eurogunea osatzen duten herrialde guztietan. Eragina esportazioen prezioarekiko elastikotasunaren eta kanporako irekiera mailaren arabera izango da.

2015-2016 biurtekoan, batez beste, %2,0ko hazkunde tasa gaudituko duten Euroguneko ekonomia apurren artean, Espainia egongo da. Azken hilekoetan, aurreikuspenak gorantz zuzendu dira. Esate baterako, Consensus Forecasts-ek %2,9ra igo du BPGaren 2015eko

hazkunde tasa eta %2,6ra, berriz, 2016koa, aurreko hilekoetan zenbatetsi ziren datuak gorantz zuzenduz. Analisisileak bat datoz 2015eko bigarren sei hilekoan moteltzea biziko dela urte arteko tasetan adierazteko orduan, kontsumo pribatuaren eta ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren apaltzeak eraginda. Beste aldetik, eraikuntzan eginiko inbertsioak joera hedakorra aurkeztuko du, hala egoitzen osagaian nola gainontzeko eraikinetan. Lan merkatuari dagokionez, enpleguak gora egingo du, baina gero erritmoa motelduko da, BPGaren hazkunde tasaren azpitik kokatu arte. Langabezia tasak altua izaten jarraituko du.

### ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2015eko maiatza)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015			2015	2016
	II	III	IV		
BPG	<b>2,8</b>	<b>2,6</b>	<b>2,4</b>	<b>2,6</b>	<b>2,4</b>
Kontsumo pribatua	3,2	2,8	2,3	3,0	2,5
Kontsumo publikoa	0,7	0,8	0,9	0,8	0,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	4,8	5,3	5,7	5,2	6,4
- Inbertsioa ekipamenduan	8,5	9,0	8,9	8,8	8,3
- Inbertsioa landutako aktibotan	7,5	5,8	4,4	6,4	4,7
- Inbertsioa eraikuntzan	3,2	3,7	4,3	3,6	5,6
Barne eskaria	3,0	2,9	2,7	2,9	3,0
Esportazioak	6,7	6,8	6,7	6,6	6,3
Inportazioak	7,8	7,8	8,0	7,9	8,6

Iturria: CEPREDE

Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailak ekonomia hazkundearen aurreikuspenak gaurkotu ditu 2015erako eta 2016rako. Ekonomiaren susperraldiak eragilean igurikimenean eta konfiantzaren hobekuntza ekarri du. Hori dela eta, BPGaren 2015eko hazkunde tasa zertxobait gorantz berrikusi da lehenago zenbatetsi zenaren aldean. Zehazkiago adierazita, aldakuntzaren batez besteko tasa %2,5ean kokatuko da. Orobat, 2016ko hazkundearen kalkulua eskaintzen da, %2,5ean ere zifratu dena.

Aztertu behar den eta taula makroekonomiko guztien atzean dagoen aldagai garrantzitsu bat petrolioaren salneurriak etorkizunean izango duen bilakaera da. Azken aldian gertatu den beherakada garrantzitsuak balia bideak aurrezteko ahalbidetu du, kontsumora eta inbertsiora bideratzeko. Aurrekoaz gain, euroaren balio galera ere kontuan hartu behar da, esportazioak



areagotu dituelako. Etorkizunari begira, eszenategi asko eratu dira petrolioaren salneurriak epe laburrean eta ertainean erakutsiko duen bilakaeraz. Halere, oinarriko hipotesiak goranzko joera apala iragartzen du, eskaria eta eskaintza beste oreka bat lortuta. Kasu horretan, erauzteko metodo berriek eta energia iturrien dibertsifikazioak eskaintza handituko dutela eta erreserben prezioa egokituko dutela aurreikusten da.

Truke tasari dagokionez, euroak dolarraren aldean balioa galtzen jarraituko duela aurreikusten da, EBZk bonuak erosteko egitasmoari eutsiko diolako eta interes tasen arteko diferentzialak bere horretan jarraituko duelako.

#### EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2015eko ekaina)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015			2015	2016
	II	III	IV		
BPG	<b>2,4</b>	<b>2,6</b>	<b>2,5</b>	<b>2,5</b>	<b>2,5</b>
Azken kontsumoa	2,3	2,2	2,0	2,2	1,8
Kontsumo pribatua	2,6	2,6	2,3	2,6	2,1
Kontsumo publikoa	0,9	0,9	0,9	0,7	0,6
Kapital eraketa gordina	1,8	2,5	3,0	2,2	3,1
Barne eskariaren ekarpena	2,3	2,4	2,3	2,3	2,2
Kanpo saldoaren ekarpena	0,1	0,2	0,2	0,2	0,3
Lehen arloa	9,7	9,9	-4,2	7,3	6,8
Industria eta energia	1,0	2,1	2,3	1,4	2,7
Eraikuntza	0,9	1,2	1,4	1,0	1,6
Zerbitzuak	2,8	2,7	2,7	2,8	2,5
Balio erantsi gordina	2,4	2,6	2,5	2,4	2,5
Ekoizkinen gaineko zergak	2,5	2,4	2,0	2,4	1,8
BPGaren deflatoarea	-0,1	0,3	0,5	0,1	1,0
Enplegua	1,6	1,8	1,7	1,6	1,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiaren hazkundearen motorra barne eskaria izango da eta hazkunde horri aurre egingo dion ekarpena 2,3 puntukoa izango da, datorren urtekoa 2,2 puntura mugatuko delarik. Familiaren gastua kontsumoan nabarmen areagotuko da. Datozen hiruhilekoetan, enplegu gehiago sortuko dela aurreikusten da, interes tasan txikiak izango dira, kreditua lortzeko

baldintzak hobekak izango dira eta inflazioa apala izango da. Horiek guztiek kontsumitzaileen konfiantza areagotuko dute. Kapital eraketa gordinari dagokionez, aurreikuspenek nolabaiteko sendotasuna iragartzen dute, 2015ean eta 2016an bizkortzeko joera garbia erakutsiz. EAEko enpresarien iritziak positiboak dira datozen ekitaldietarako. Petrolio merkeak eta interes tasa apalak inbertsioa areagotuko dute.

Kanpo eskariaren ekarpena positiboa baina txikia izango da kontuan hartu den epealdi osoan zehar. Europako eta Espainiako ekonomien susperraldiak EAEko esportazioen hazkundera eragingo du, baina inportazioak ere gehituko dira barne eskarirako espero den bizitasunak bultzatuta.

Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztiek, salbuespenik gabe, ekarpen positiboak egingo dizkiote balio erantsiari 2015ean eta 2016an. Eraikuntza alorreko jarduerak hazkunde tasa positiboak jasoko ditu kontuan hartu den aurreikuspen denbora osoan. Badirudi, sektorearen doikuntza amaitu dela eta zazpi urtez narriadura bizia pairatu ondoren, tasa positiboak berriro agertu dira. Industriaren jarduerak hazkunde erritmoari eutsiko dio, ekonomiaren gorakada orokorrari esker. Azkenik, zerbitzuek bere susperraldia baieztatuko dute, goranzko joera esanguratsua erakutsiz.

Enplegua dela eta, urte osoko aldakuntza tasa aurten %1,6 izango dela aurreikusten da. Datorren urtean, batez besteko hazkunde tasa %1,7ra iritsiko da. Taula makroekonomikoa osatzeko, langabezia tasaren aurreikuspena aipatu behar da, aurten %14,0an kokatuko dena eta datorren urtean %12,9ra jaitsiko dena, biak urteko batez bestekoan.